

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu urriaren zortzitik hamalaura: kontzertuak, zinema, tailerrak, eskultura, erakusketak eta bisitak

Astelehena, 2018.eko urriak 8

[Aste honetan](#), musikaren alorrean tresna batek izango du distira berezia, organoa. Izan ere, Organo Musika Nafarroan jaialdiak bi jardunaldi berezi eskainiko ditu organoaren doinuen omenez: ostiralean eta Donezteben, Bidasoako Organoen Eguna ospatuko da eta larunbatean eta Tuteran, Nafarroako Erriberako Organoen eguna ospatuko da ere bai.

Astero bezala, izarrek eta zinemak argituko dute Nafarroako Filtoteka hiru film ederren eskutik: astelehenean “Western”, asteazkenean “La dama de Shanghai” eta ostegunean “Perfume de mujer”. Hiru proiektioak arratsaldeko zortzietan hasiko dira.

Formakuntzari dagokionez, Huarte Zentroak eskaintza oparoa prestatu du aste honetan. Hasteko, astelehenetik ostiralera inprimatze tailer bat eskainiko du “Estanpazio-teknikak, hezkuntza baliabide” izenpean. Halaber, aste osoan zehar “Periferia birpentsatu Etxabakoitzen” proiektua zabalduko du arkitekturaren inguruan hausnartzeko. Era beran, “Habitación: barruko landareak” proposamena zabalik da eta Arte Gazteren 2018 Topaketaren harira tailer bat eskainiko du ostiralean koreografia sorkuntzaren inguruan: “Korronte alternoa - Ahotsa, emozioa eta gorputza”. Huartetik haratago badago non aukeratu, esate baterako Oteiza Museoak haurrentzako tailer bat prestatu du iganderako “Objektua memoriaren eraikuntzat” izenarekin. Bukatzeko, Nafarroako Liburutegiak haurrentzako “Ongi etorri ipuinetara” tailerra zabalik mantentzen du eta Lizarran Karlismoaren Museoak prestatu zuen scape



“Toisoiaren lapurreta: escape room”, igandean amaituko da Lizarrako Karlismoaren museoan.

room-a gozatzeko azken aukera izango da aste honetan, iganderarte: "Escape room: El robo del Toisón".

Astlehenean Nafarroako Liburutegiak Julián Gayarrerren irudia omenduko du hitzaldi eta kontzertu batekin. Astearterako, berriz, Pablo Antoña idazlearen inguruko saio bat prestatu da.

Erakusketen eskaintzari begira, Oteiza Museoan "Macla, mamua, bismuto, vicario" proposamena bisita daiteke eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusian "Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)" erakusketa izango da ikusgai.

Azkenik, Nafarroako Museo Zerbitzuaren "Pasaporte, museatu! Eta bidaiatu" egitaraua martxan da beste aste batez. Hori dela eta, Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko bi bisita zabaldu dira ostiralean. Gainera, larunbat eta igandean Tuterako Katedraleko Judizioaren Atean egiten ari diren zaharberritze-lanak ezagutzeko aukera zabaldu da. Bukatzeko, igandean eskaintza hirukoitza egongo da Iruñeko Katedraleko Klaustroan egiten ari diren konpontze lanak bisitatzeko.

Kultura egitarauaren xehetasun guztiak [esteka honetan](#).

